

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Erregeak omendu dira Leiren, Espainiako errege-erreginak bertan zirela

Felipe erregeak lore-koro bat utzi du lehen erregeen hilobiaren aurrean

Miércoles, 10 de junio de 2015

Felipe erregea eta Letizia erregina abadeen elizan sartu dira, eta bertan presbiterio alboko eserleketan eseri dira; handik elizkizuna jarraitu dute, Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako gotzain Francisco Pérez González buru zela, eta meza monasterioko abade mitradunak eman du, komunitate beneditarreko kideek eta beste apaiz

batzuekin batera. Musikaz Nora abesbatza arduratu da, Bruno Jiménezek zuzenduta, Antonio Guerrero organo-jotzailearen laguntzarekin, eta monasterioko monjeen abesbatzak ere esku hartu du.

Elizkizunean zehar, Espainiako Errege eta Errege Familiagatik, antzinako Erreinuko errege eta printzeengatik, bai eta Nafarroako erakundeengatik eta bertako agintariengatik, artzapezpikuak ondorengo eskaera bat egin du; "Jainkoak horien guztien bake, justizia eta askatasunerako beren erabakietan zuzen eraman ditzala, herritarren arteko bizikidetzak sustatzeko asmoz".

Elizkizunean zehar, Espainiako Errege eta Errege Familiagatik, antzinako Erreinuko errege eta printzeengatik, bai eta Nafarroako erakundeengatik eta bertako agintariengatik, artzapezpikuak ondorengo eskaera bat egin du; "Jainkoak horien guztien bake, justizia eta askatasunerako beren erabakietan zuzen eraman ditzala, herritarren arteko bizikidetzak sustatzeko asmoz".



Felipe erregea lore-koro bat hilobiaren aurrean uzten

Espainiako errege-erreginak Nafarroako Erregeei egiten zaien omenaldi tradizionalan parte hartu dute gaur goizean. Omenaldia Leireko San Salvador monasterioan egin da [2015eko Kulturaren Vianako Printzea Saria Ramón Andrési eman ondoren](#). Ekitaldiaren amaieran,

Felipe de Borbon erregeak lore gorritz osatutako koro bat utzi du Nafarroako lehen erregeen gorpuzkiak gordetzen dituen hilobiaren aurrean.

Agerraldi erlijiosoaren ondoren, Nafarroako jarduneko Lehendakariak abade mitradunari erretilu bat eman dio antzinako Nafarroako Gorteen bozketetarako erabilitako zilarrezko kutxetako batekin; haren barnean erakundearen dohaintza sinbolikoa dago monasterioko kultuak jarrai dezan.

Jarraian, errege-erreginak, Barcina Lehendakariarekin eta monasterioko abadearekin batera, tenpluko iparraldeko hormara joan dira, lehen Nafarroako Erregeen hilobiraino; azken horien girpuzkiak apaingarri metalikoekin dekoratutako egurrezko kuta neogotiko batean zainduta daude. Dirudienez, kutxak Iruñeko erreinuko lehen erregeen gorpuzkiak ditu, Nafarroako erreinuaren sustatzaile izan zirenak, eta haien artean daude: Iñigo Arista (Iruñeko lehen erregea, IX. mendea), García I Iñiguez (IX. mendea), Fortún Sánchez (Iñiga dinastiaren azken erregea, IX. mendea), Antso I. Gartzes (X. mendea), García Sánchez (X. mendea) eta Antso Gartzes II. Abarka (X. mendea). Felipe erregeak lore gorritz osatutako koro bat utzi du bertan "Espainiako errege-erreginak" jartzen zuela.

Azken bedeinkapenaren ostean, eta Nafarroako Ereserkia entzuten zen bitartean, Felipe erregea eta Letizia erregina tenplutik atera dira hegoaldeko hormako atetik.

Leireko egonaldia

Erregeek Leirera egindako bisita Barcina Lehendakariak egindako ongietorriarekin hasi da, eta hark Nafarroako Gobernuak berriki argitaratutako liburua eman die: ["Cuando las cosas hablan. La historia contada por cincuenta objetos de Navarra"](#).

Gainera, Erregeak Ramón Andrés eta haren familiarekin bildu dira, bai eta gonbidatuekin ere, eta guztiekin solasean aritu dira.

Galería de fotos



Erregea artzapezpikua agurtzen



Erregeak Barcina Lehendakaria agurtzen



Erregeak eta Barcina Lehendakaria, hilobiaren aurrean



Erregeak, Gobernuako kideen eta Parlamentuko lehendakariaren alboan



Erregeak eta Ramón Andrés, sarituaren kide diren musikarien alboan



Erregeak, Barcina Lehendakaria, Wert ministroa eta Ramón Andrés, Nafarroako Kultura Kontseiluko kideen alboan